

## **KONTROL MOZIOA**

### **URGULLEKO KOMUNETAKO UR BELTZEN GESTIOAREN INGURUAN**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko irailaren 16an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Abuztuaren 29an, Eguzki talde ekologistak eta Parte Zaharreko hainbat bizilagunek Urgulleko komun bateko ur beltzak mendira isurtzen ari zirela salatu zuten. Bizilagun batek grabatutako bideo batean ikus daiteke bolborategian dauden komunetako ur beltzak mendian bertan isurtzen direla. Dirudenez, Udal Gobernuak egoeraren berri zuen 2018tik eta, nahiz eta hainbat kexa jaso, orain arte ez du erantzunik eman.

Batzordean, delegatuak adierazi digu atzetik datorren arazoa dela eta 2019ko aurrekontuetan saneamendurako obra jasota dagoela, nahiz eta ez den exekutatu. Dirudenez, Foru Aldundiaren onspena behar da proiektuarekin aurrera jarraitzeko.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

### **KONTROL MOZIOA**

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Urgulleko komunetako ur beltzen saneamendua hobetzeko behin-behineko neurriak har ditzala, behin-betiko obra egiten den bitartean, 2019ko udan gertatutakoa errepikatu ez dadin.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Foru Aldundiarekin egin beharreko gestioak azkartu ditzala, mendian egin beharreko saneamendu proiektua 2020an egin dadin.

Donostian, 2019ko irailaren 19an

Olaia Duarte López  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia